

# Ñabarduretatik eta ñabardurei kantari

## TESTURAK

Emakume Etxeek antolatutako bertso saioetan lehen izan zen Eibarkoa, irailaren 30ean egin zena.

Hurrengo emanaldiak (denak 19:00etan):

- Urriaren 5ean Ermuako Emakume Topalekuan.
- Urriaren 28an Ondarruko Etxelilan.
- Azaroaren 9an Azeitiko Emakumeen Txokoa.
- Azaroaren 11n Arrasateko Emakumeen Txokoa.
- Azaroaren 18an Durangoko Andragunean.
- Abenduaren 1ean Basauriko Marienean.



Ainhoa Agirreazaldegia

Aurreko ostiralean izan zen *Testurak* ekimeneko lehen saioa, Eibarko Andre-txean, Nerea Ibarzabal gai-jartzaille lanetan eta Saioa Alkaiza, Onintza Enbeita, Izarne Zelaia eta Ainhoa Agirreazaldegia bertso kantari ginela. Egitura zehatza izango dute *Testurak* saioek: gai-jartzai-leak, bertsoaldi bakoitzerako, emakumezko idazle baten testu zati bat irakurriko du eta, ondoren, testu horretatik abiatuta, gaia emango die bertsolariei.

Argi geratu zen lehen ekitaldian, saioak Emakumeen Etxeetan izateak eta gaiak idazleen testuetatik abiatzeak bertsolariorie eta entzuleei zukua ateratzeko moduko hainbat abagune eskaintzen dizkigula.

Izan ere, bertso saio batean beti da interesgarria gai jakin baten barruko azpi-gaiak, matizak, ikuspegi desberdinak agertzea. Hain zuzen, bertsoetan horixe izaten da batzuetan zailena, hiruzpalau bertsoetan guztia egin behar baitu bertsolaria: gaiaren zein alderi helduko

dion erabaki, hori publikoari ahalik eta ondoen adierazi, eta bizpahiru mezu eman. Eta publikoki gehiegi landu gabeko gaiak direnean, ez da erraza bertso-lariarentzat matizetaraino iristea: gaiaren azaleko geruzan geratzeko arriskua egoten da.

Idazleen hitzek testuinguru zehatz batean kokatu gintuzten Eibarren. Gertakari baten inguruko gogoetek, pertsonaien arteko elkarrizketek... kontestu aberatsa ezarri zioten gerora etorriko zen gaiari: iragan bat, orain bat, emozio bat, leku bat, tonu bat... Eta hala, gerora gai izan ziren ahotsa, amildegia, adineko emakumeen gorputza, ezkontza, ama izatearen presio soziala, oroitzen ez diren harremanak, hilerokoa, bidaietako maletak, ligeak... hainbat ñabardurekin jaso genituen bertsolari eta entzuleek, eta ñabardura konpartitu haietatik abiatuta osatu genituen bertsoaldiak. Horrek, politikoki zuzenak diren bertsoen beharra uxatu eta mami aberatsa-

goak sortzeko aukera ezin hobea eman zigun. Eta hala agertu ziren pertsonaia tristeak, lotsagabeak, damutuak, goxoak, asaldatak, beldurtiak, makarrak, kontraesankorrak... umore dosi handi batek lagunduta. Azken finean, bizitzaren testurak, fikziozko egoerak ziren arren, mamitik eta zintzotasunetik asko zutenak.

Saioak izan zuen beste opari bat ere: Ixiar Rozas, Eider Rodriguez, Miren Agur Meabe, Katixa Agirre, Leire Bilbao, Karme Jaio, Ana Urkiza, Irati Jimenez, Castillo Suarez, Irati Goikoetxea eta Ana Malagon idazleen obrak gehiago ezagutzeko egarriz atera ginen Eibarko saiotik bai entzuleak, bai bertsolaria. Zeharkakoa bada ere, ez da lorpen makala hori bera.

Eskerrik asko, beraz, Emakumeen Etxeei, geure buruak –denona eta bakoitzarena– berrasmatzeko aukera emateagatik. Hurrengo ñabarduretarako gozoz... ■

